



## ETXEKO KONTSUMOA TARIFA ELEKTRIKO BERRIETARA EGOKITZEN IKASTEKO SAIO PRAKTIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, Andoaingo Udalarekin elkarlanean, Energia Argitu programaren baitan, **etxeiko kontsumoa tarifa elektriko berrietara nola egokitu ikasteko eta hortik abiatuz erabaki egokiak hartzeko balio duen tailerra antolatu du urriaren 21ean, 18:30tan, Bastero kulturgunean.**

Jakin badakigu kontsumo datuak ezagutzea (zenbat kontsumitu dugun edo noiz izan dugun kontsumo mailarik altuena) ezinbestekoa dela kontsumo hori murrizteko, aplikatzen zaigun tarifa egokitzeko eta kontratatuta dugun potentzia egokia ote den egiaztatzeko. Tarifa elektriko berriekin, honek berebiziko garrantzia du, izan ere, efizienteagoak bagara, kontsumoa murriztuz, eta gure kontsumoak modu egokian banatzen baditugu, aurreztu egingo dugu eta energia berriztagarriak sustatuko ditugu. Tailer honetan herritarrei erakutsiko zaie hori nola egin, zehazki hiru gai hauek landuz: Nola eskuratu norberaren argindar kontsumoaren datuak; nola murriztu eta nola birbanatu kontsumoa eta nola aukeratu tarifarik egokiena; eta nola egiaztatu kontratatuta daukagun potentzia dela benetan behar duguna.

Tailer honetan parte hartu nahi duten herritarrek, urriaren 19a baino lehen izena ematea beharrezkoa da, saioak aurrera egiteko ezinbestekoa baita alde aurretik ikasleen kopurua ezagutzea. Horretarako, honako bideak erabil daitezke:

- **Posta elektronikoa bidaltzea ondorengo helbidera: [argitu@gipuzkoa.eus](mailto:argitu@gipuzkoa.eus)**
- **Honako telefono zenbakira deitzea: 628-532-303** (astelehenetik ostiralera)
- **Informazio osagarria: [www.argitu.eus](http://www.argitu.eus)**

Jose Luis Verdasco Hirigintza eta Ingurumen zinegotziak herritarrak animatzen ditu saio honetan parte hartzera. Gure kontsumoak ezagutzea zein garrantzitsua den erakutsiko digute, eta gure tarifa doitu ahal izango dute, murriztu ahal izateko.

Tailer hauek Energia Argitu programaren baitan kokatzen dira eta bere helburua Gipuzkoako sektore ezberdinei (etxebizitzak, merkataritza, enpresa txikiak, etab.) energiaren kontsumoaren murrizketa lortzeko, eraginkortasuna handitzeko eta energia berriztagarriak bultzatzeko tresnak eskura jartzea da. Horretarako, Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Foru Departamentuak baliabide-multzo bat jartzen du lurraldeko eragile ezberdinen eskura; hala nola, aurrez aurreko prestakuntza-saioak, on-line tutorialak, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko gidak, Energia Argitu programaren web gunea, eta abar. 2021 urtea amaitu aurretik, etxeiko kontsumoa tarifa elektriko berrietara egokitzen ikasteko tailer praktikoez gain, Gipuzkoako udalerrietan beste hainbat tailer ere eskainiko dira, guztiak energiaren aurrezpenarekin eta erabilera jasangarriarekin zerikusia dutenak:

- **Energia berriztagarriak zure etxean... posible da!**
- **Eraginkortasun altuko birgaitzea: zure etxerako baliagarria, dirua aurrezteko eta osasuna irabazteko**
- **Etxean energia aurrez dezakezu erosotasunik galdu gabe!**
- **Ibilgailuak elektrikoak eta mugikortasun jasangarriko aukerak**

Tailerrean beharrezkoa izango da ezarrita dauden osasun eta higiene baldintzak betetzea eta musukoa erabili beharko da uneoro.

Andoain, 2021eko urriak 13



## TALLER PRÁCTICO PARA APRENDER COMO ADAPTAR EL CONSUMO ENERGÉTICO A LAS NUEVAS TARIFAS ELÉCTRICAS

El Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el marco del programa Energia Argitu y en colaboración con el Ayuntamiento de Andoain, ha organizado, el **21 de octubre a las 18:30, en el centro cultural Bastero**, un taller para **aprender a adaptar el consumo energético a las nuevas tarifas eléctricas**.

Está demostrado que el conocer nuestros datos de consumo (cuánto hemos consumido y cuándo se han producido los consumos más importantes) es imprescindible para poder reducir dichos consumos, adecuar la tarifa que se nos aplica y comprobar si la potencia que tenemos contratada es la adecuada. Con las nuevas tarifas eléctricas, esto es más importante que nunca, porque ser más eficientes, es decir, reducir el consumo, y redistribuir los consumos, servirá para ahorrar e impulsar las energías renovables. En este taller la ciudadanía tendrá la oportunidad de aprender a acceder a sus datos de consumo eléctrico, a reducir y redistribuir sus consumos y elegir la tarifa que mejor se adecúe a su hogar o pequeño negocio y a comprobar que la potencia que tiene contratada es la que realmente necesita.

Las personas que deseen participar en el taller, deben inscribirse antes del 19 de octubre, dado que es necesario conocer previamente el número de participantes para poder desarrollar estas sesiones correctamente. Para ello, pueden utilizarse los siguientes medios:

- **Escribir un correo electrónico a la siguiente dirección: [argitu@gipuzkoa.eus](mailto:argitu@gipuzkoa.eus)**
- **Llamar al número de teléfono: 628-532-303** (de lunes a viernes).
- **Información complementaria: [www.argitu.eus](http://www.argitu.eus)**

El concejal de Urbanismo y Medio Ambiente Jose Luis Verdasco anima a la ciudadanía a participar en esta sesión donde nos mostrarán lo importante que es conocer nuestros consumos y poder ajustar nuestra tarifa para poder reducirlos.

Estos talleres se organizan en el marco del programa Energia Argitu y su objetivo es conseguir reducir los consumos energéticos, aumentar la eficiencia y fomentar las energías renovables, de forma sencilla, en distintos sectores de Gipuzkoa (residencial, comercios, pequeñas empresas, etc.). Para ello, el Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa pone a disposición de diferentes agentes del territorio un conjunto de recursos, tales como, sesiones formativas presenciales, tutoriales on-line, guías de ahorro y eficiencia energética, web del programa Energia Gipuzkoa, etc. Durante el último trimestre del 2021, además de los talleres dirigidos a enseñar cómo adaptar el consumo energético a las nuevas tarifas eléctricas, tendrán lugar en diferentes municipios del territorio otros talleres prácticos ligados todos al ahorro y al uso sostenible de la energía:

- **¡Puedes ahorrar energía en tu vivienda sin perder confort!**
- **Energías renovables en tu vivienda... ¡es posible!**
- **Rehabilitación altamente eficiente para tu vivienda: ahorra dinero y gana en salud**
- **Vehículos eléctricos y alternativas de movilidad sostenible.**

Por último, señalar que en el taller será obligatorio el cumplimiento de las condiciones higiénico sanitarias en vigor, por lo que será imprescindible el uso de mascarilla.

Andoain, 13 de octubre de 2021